

## **GALDERA OHIKOENAK MUSIKA ESKOLAKO DIRU-LAGUNTZEN GAINEAN**

**2018 /2019 IKASTURTEA**

### **1.- Noiz eskatu behar da diru-laguntza? Zein da epea aurkezteko?**

2018ko irailaren 10etik urriaren 5era arte.

### **2.- Non lortu ahal da inprimakia? Eta betetakoan, non entregatu behar da?**

Inprimakia eskuratu eta entregatu ahal da Areetako eta Algortako Musika Eskolan, edota Udaleko edozein HABetan. Sinadura digitala edukiz gero, interneten bidez aurkeztu ahal da eskaria. Era berean, aurkeztu beharreko dokumentazioa eskaneatuta erantsi ahal da. Sinadura digitala eduki ezean, online dagoen inprimakia bete ahal da, inprimatu, sinatu eta Musika Eskolan entregatu behar da behar diren agiri guztiekin batera.

### **3.- Zein baldintza bete behar dira?**

Ikasturte honetan Musika Eskolan matrikulatuta egon behar da eta Getxon erroldatuta.

### **4.- Nire familian pertsona bat baino gehiagok eska dezakegu dirulaguntza hau. Zenbat eskaera orri bete behar ditut?**

Ikasle bakoitzeko eskaera orri bat bete beharko duzu.

### **5.- Dokumentazio guztia entregatu behar dut eskaera bakoitzeko?**

Ez. Bakoitzeko eskaera orria entregatu behar duzu. Dokumentazioa familia bakoitzeko behin besterik entregatu beharko duzu. Internet bidez egingo bazenu, dokumentazio guztia eskaera bakoitzari erantsi beharko diozu.

### **6.- Badago adin-mugarik?**

Ez, diru-laguntza eskatu ahal da matrikulatuta egonez gero, baita Getxon erroldatuta egonez gero ere; berdin da zein adin duen ikasleak.

### **7.- Zein motatako laguntza jaso ahal da?**

Baldintzak betez gero, diru-laguntzen bidez ordaintzen dira ikasi beharreko asignatura nagusi bat (tresna, kantu bakarlaria...) eta taldeko asignatura bat (musika-taldea, hizkuntza musikala...). Matrikula ez da ordaintzen, ezta asignatura gehiago ere, asignatura gehiagotan matrikulatuta egonda ere.

### **8.- Familia ugariak badute diru-laguntzarik?**

Ez, modu automatikoan. Araudiak ezartzen dituen baldintza ekonomikoak bete egin behar dira. Familia ugariak badituzte aplikatzeko deskontuak, familia-aitorpenaren araberakoak, bizileku berean bizi den seme edo alaba bakoitzarentzat, baita eskatzailearentzat ere.

### **9.- 65 urte baino gehiago dutenek badute diru-laguntzarik?**

Aurreko kasuan bezala, ez modu automatikoan. Araudiak ezartzen dituen baldintzak bete egin behar dira.

### **10.- Bananduta dauden familien seme-alabek eskatu ahal dute diru-laguntza aitarekin eta amarekin?**

Ez, haietako batekin baino ez, seme-alabekin Getxon erroldatuta dagoenarekin hain zuzen ere.

### **11.- Zein dokumentazio aurkeztu behar da?**

Eskatzailearen edo bere legezko ordezkariaren Nortasun Agiria; Errenta Aitorpenaren fotokopia; Ogasunean aitorpenik ez duten familien kasuan, bizimodua egiaztatzen duen beste

edozein egiaztagiri; kasua bada, honako egiaztagiri hauek: familia ugariak, guraso bakarreko familiak ( banandutakoak, alagunak...), umezurtzak, ezinduak, neba-arrebak unibertsitatean ikasten etxetik kanpo...

### **12.- Zenbat diru-sarrera izan behar da gehien jota?**

Gainditu ezin daitezkeen diru-sarrerak deialdiko oinarrietan datoz, eta desberdinak dira familia-unitatearen kide-kopuruaren arabera.

### **13.- Diru-sarrerarik izan ezean, zer idatzi behar da eskarian?**

Diru-sarrerak justifikatu egin behar dira nola edo hala: jasotako diru-laguntzen frogagiriak, lan-kontratuak, 10T, bestelakorik (dokumentu ofizialen bidez justifikatu behar da bizimodua: Gizarte Zerbitzuak, Gurutz Gorria, Cáritas...)

### **14.- Zelan kalkulatzen dira familiaren diru-sarrera garbiak?**

ZERGA-OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA-OINARRIA – KUOTA LIKIDOA + kargatasarik gabeko sarrerak (dietak, sariak, etab.)

### **15.- Noiz ordaintzen da beka? Eta zelan jakingo dut?**

Behin-behineko erabakia Musika Eskolako iragarki-taulan jakinaraziko da eta web orrian: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus). Erabakiak dagoeneko ez dira korreoz bidaliko, baina iragarki-taulan argitaratzen denean, SMS mezuak edota mezu elektronikoak bidaliko zaizkie interesdunei. Alegazioak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da. Diru-laguntzen ordainduko da ikaslearen hileko ordainagiritik kenketa eginda bekan lortutako laguntza: Espezialitate bakarra eta taldeko asignatura ikasten baduzu, ez dizugu hileko ordainagiririk igorriko; eta beste ikasgairen bat gehiago izanez gero, bekarik ez duzun beste horren/horien ordainagiria bidaliko dizugu hileroko.